

GOBERNU BATZARRA

2016. 10. 10

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko urriaren hamarrean, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Iñigo Alonso Sarasibar Jokin Azkue Arrastoa	1.- Aurreko akta onartzea. 2.-Tolosako Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa: 2016ko Uztaila eta Abuztuko fakturak.
Beh. Behineko Idazkaria:	
Karmele Contreras Goikoetxea	3.-Zabor tasaren aldaketa eskaera konposta programaren barruan egoteagatik.
Kontuhartzailea:	
Ainhoa Molinos Zubiaurre	4.- Iurreamendi Egoitza: Iraileko faktura eta atzerapenak. 5.-Ikastetxeen mantentzea: dirulaguntzak. 6.-32/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko urriaren 3an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Tolosako Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa 2016ko Uztaila eta Abuztuko fakturak.

Tolosaldeko Mankomunitatearen Osoko Bilkurak 2014. ekitaldian mankomunitateko gastuei aurre egiteko udalek egin behar dituzten zehazteko irizpide berriak onartu zituen. Irizpide hauek bilketa sistema desberdinen existentzian dute oinarria eta zati finko bat eta zati aldakor bat finkatzen dira. Zati finkoa, komunean dauden gastuei aurre egiteko, eta zati aldakorra, udalek jasotzen dituzten zerbitzuen kostuetan oinarrituta.

2016ko urtarrilaren 18an Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2016ko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen, non ekitaldiko gastuen eta sarreren xehetasunaz gain, udalen ekarpen finkoen banaketaren berri eman zen.

Tolosaldea Mankomunitateak ondorengo fakturak aurkeztu ditu:

Fra. 2016 uztaila	116.438,37
Fra. 2016 abuztua	115.371,79

Aipatutako kontuan izanik, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA: Tolosaldea Mankomunitateak aurkeztutako ondorengo fakturak onartzea:

Fra. 2016 uztaila	116.438,37
Fra. 2016 abuztua	115.371,79

BIGARRENA: Erabakiaren berri kontuhartzaitzari ematea.

3.- Zabor tasaren aldaketa eskaera konposta programaren barruan egoteagatik.

J. M. B. A. erreklamazioa aurkeztu du 2016ko uztailaren 21ean, adieraziz berak auzokonposta egiten duela lurre auzoan eta 2016 urteko tasa 106,75 euro ordaindu dituela.

Konposta programaren eragileen zerrenda kontsultatu ondoren erreklamatzailerak auzokonposta egiten duela baieztatzen da.

Bestalde, M.L.U.G.ek, M.A.B.M.-ren izenari, erreklamazioa aurkeztu du 2016ko irailaren 14an, adieraziz etxean autokonposta egiten duela eta 2016 urteko tasa, 106,75 euro ordaindu dituela.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Mankomunitateak egindako proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA:- lurre 21 5.A etxebizitzaren tasaren aldaketa egitea eta titularrari 21,40 euro itzultzea.

BIGARRENA:- lurrarekin 5F etxebizitzaren zabor tasaren aldaketa egitea eta titularrari 32,05 euro itzultzea.

HIRUGARRENA:- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

4.- Lurreamendi Egoitza: Iraileko faktura eta atzerapenak.

Lurreamendi egoitzak iraileko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Lurreamendi egoitzari ordaintzea iraileko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **23.587,55 €**-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 855,60 €

Elbarrien defizita: 22.731,95 €

BIGARRENA.- Onartzea lurreamendi egoitzak 2016ko urtarriletik abuztura bitarteko atzerapenak, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2016ko behin betiko tarifak aplikatuta eginak, honela banatuta:

Urtarrila	6.597,32 €
Otsaila	6.032,78 €
Martxoa	6.436,68 €
Apirila	6.265,92 €
Maiatza	6.421,03 €
Ekaina	6.245,69 €
Uztaila	6.521,74 €
Abuztua	6.552,21 €
GUZTIRA	51.073,87 €

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

5.- Ikastetxeen mantentzea: dirulaguntzak.

Tolosako ikastetxe itunduentzat mantentze lanetarako dirulaguntzak emateko proposamena aurkeztu zaie batzordekideei.

Kopuruaren banaketa, aurreko urteetan egin den moduan, Tolosan erroldatutako HH eta LHko ikasle kopuruaren arabera egin da, kontuan hartuz ikastetxeek aurkeztutako 15-16 ikasturteko

matrikulazio datuak: Hirukidek (Jesuitinak+Gainberri), 614 ikasle, eta Laskorain ikastolak, 941 ikasle. Guztira 1.555 ikasle.

Udalak, bestetik, 2016 urterako onartutako aurrekontuan 48.000 euro dauzka izendatuta aipameneko helburuarekin.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ematea 2016ko dirulaguntzak honako taula honetan agertzen den eran:

Ikastetxea	H.H. eta L.H.ko Tolosako ikasle kopurua	Diru kopurua ikasleko	Dirulaguntza
Hirukide Ikaste-txea	614 ikasle	48.000/1.555 €	18.953,05 €
Laskorain Ikastola	941 ikasle	48.000/1.555 €	29.046,95 €
OROTARA	1.555 ikasle		48.000 €

BIGARRENA.- Ikastetxeei jakinaraztea dirulaguntza jasotzeko, honako kontzeptu hauei dagokien dokumentazioa (faktura originalak edota konpultsatuak..) aurkeztu beharko diotela Udalari: atezaina, eraikinen konponketa arruntak, erregaiak, ura, argia eta garbiketa; eta zergak zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta aipatutako Ikastetxeei.

7.-32/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **32/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **123.170,89 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **32/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontu-hartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh.IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Karmele Contreras Goikoetxea